

FUNTSESKO JARDUERA

Badaude kanpoko enpresen esku utzi ezin daitezkeen funtsezko jarduerak, beti enpresa barruan egin beharrekoak, adibidez; taberna batean erabiltzen dezun errezeta sekretu bat, zuk egin behar dezu errezeta hori, ezin du beste enpresa batek egin. Beraz, ezagutzarekin, negozioaren “know how” delakoarekin, lotutako guztia ezin da besteen esku utzi.

Garrantzitsua da enpresa barruan egin daitezkeen zereginak identifikatzea:

Beste enpresa batzuen esku utz daitezkeen jarduerak:

- Beste enpresa batzuen esku utz daitezke, enpresak berak egiteak ez diolako balio erantsirik ematen. Adibidez: catering zerbitzua, garbiketa, publizitatea...

Kanpoko enpresen esku utzi ezin daitezkeen jarduerak:

- Gure enpresaren muina osatzen dutenak. Babestu egin behar ditugu, daukagun aktiborik garrantzitsuena direlako



Zein dira egin behar dituzuen gauzarik garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

Gure enpresak egingo duen gauzarik garrantzitsuena da, konpondu edo egin behar ditugun materialak guk egingo ditugula, ez beste enpresa batzuek, baino batzuetan ere bai beharko dugu enpresa batzuen laguntza, izan ahal da ez daukagulako makinak edo produktu horien material batzuek, baino gehienetan guk egingo ditugu, horrek egiten duelako gure enpresak espezial

- Funtsezko jarduerak direla enpresa batek egin behar dituen funtsezko jarduerak, bere negozio-ereduak funtziona dezan.
- Funtsean, hauek dira:
 - Ekoizpena
 - Arazoak konpontzea
 - Plataforma edo Sareko jarduerak
- Jarduera batzuk kanpoko enpresen esku utz daitezke, eta beste batzuk ez. Ezin daiteke besteen esku utzi know how (ezagutza) delakoarekin lotutako guztia.